PRESENTATION du PROJET

PROIEKTUAREN AURKEZPENA

ANDERE SERORA HIRIBURUN
PASTORALA

3 juin et 16 septembre 2018
2018ko ekainaren 3an eta irailaren 16an

Pourquoi une pastorale à St Pierre d'Irube
Zendako pastorala bat Hiriburun ?

Le 24 février 1867, se déroula sur la place du village une pastorale en vers basques, intitulée Geneviève de Brabant.
Cent cinquante ans plus tard, une pastorale inédite, écrite en l'honneur de la commune rassemblera les Hiriburutar au nouveau centre bourg Plaza Berri.

Site : https://hiriburupastorala.wixsite.com/2018

Les armoiries de la commune - Hiriburuko armarriak

La Benoiterie - Anderesorenea

COMBAT DE BELZUNCE CONTRE LE DRAGON

Dessin de Gilbert DESPORT,
D'après un document de la Bibliothèque Nationale

3 juin et 16 septembre 2018

2018ko ekainaren 3an eta irailaren 16an

PASTORALE HIRIBURU/ST PIERRE D'IRUBE

ANDERE SERORA HIRIBURUN PASTORALA



Le 24 février 1867, se déroula sur la place du village une pastorale en vers basques, intitulée Geneviève de Brabant.

150 ans plus tard, une pastorale inédite, écrite en l'honneur de la commune, rassemblera les Hiriburutar au nouveau centre bourg Plaza Berri.

Je vous invite à soutenir ce projet culturel 2018.

Alain IRIART

PASTORALE HIRIBURU 2018

UN PROJET CULTUREL ET FEDERATEUR AUTOUR DE L'HISTOIRE DE St PIERRE D'IRUBE

Un scénario historique co-écrit par Guillaume Irigoyen et Patxi Iriart

Cette pièce chantée et dansée s'annonce comme une belle Histoire de la commune, à travers certains moments forts : la famille Belsunce et la légende du dragon, la longue bataille des frontières entre Bayonne et Hiriburu, la révolution et la bataille Napoléonienne, la mort de la dernière benoite dans l'entre-deux-guerres. La benoîte sera le sujet (l'héroïne) de cette pastorale, puisqu'elle traversera 800 années d'histoire !

Gertakari azkar batzuren bidez, agerraldi kantatu eta dantzatu horrek herriko Historiari lekukotasun eder bat ekarriko dio :Belsuntzeko familia, herensugearen leienda, Baiona eta Hiriburu arteko muga gatazka luzeak,Iraultza eta Napoléon-en guduka, bi gerlen artean azken andere seroraren heriotzea. Funtsean, ANDERE SERORA, 800 urte historia barna ibiliz, pastoralaren süjeta izanen da.

Une mise en scène orchestrée par Pantxika Urruty

"Voici un projet historique, mais aussi culturel qui s'inscrit dans la culture populaire basque" commente Pantxika, la metteuse en scène ou errejent. Pour mener le projet, elle va guider la centaine de personnes amateurs, acteurs, danseurs, chanteurs et musiciens, à travers des répétitions intenses et conviviales. Roger Goyheneche va assurer le suivi du travail chorégraphique, Sébastien Paulini le répertoire musical et Sophie Larrandaburu les choeurs.

« Hara euskal kultura herrikoian sartzen den proiektu historiko baina ere kultural bat » dio Pantxikak,errejentak edo taula-joko zuzendariak. Proiektua aintzina eremaiteko, ehun bat arizale, jokalari, dantzari, kantari eta musikari, errepikapen lantsu eta atseginetan kudeatuko ditu. Roger GOYHENECHEk koregrafia lanaren jarraipena bermatuko du ; Sébastien Paulinik musikala eta Sophie Larrandaburuk kantagintza.

HIRIBURU PASTORALA 2018, l'association de soutien au projet

L'association PASTORALA HIRIBURU 2018 a été créée pour diriger l'organisation générale du projet.

MEMBRES DU BUREAU
Présidente : Nicole Guillemotonia
Vice-président : André Boscq
Trésorier : Pierre Larralde
Secrétaire : Maialen Hiribarren
Vice-Trésorier : Jean-Daniel Elichiry
Secrétaire-adjointe : Dominique Provot

ANDERE SERORA HIRIBURUN PASTORALA 2018

Historia gaitzat daukan kultura proiektu bateratzaile bat

Sophie LARRANDABURU : Chef du CHoeur de la Pastorale, dirige plus de 100 chanteurs.
Sophie Larrandaburuk, gure koroaren burua, ehun ta hogoitahamar bat kantari fermuki manatzen ditu.

Maialen HIRIBARREN est responsable de l'atelier couture, installé dans la Benoiterie, où travaillent une vingtaine de couturières.
Dendarien atelierra, Maialen HIRIBARREN eskuetan dena, herriko andere seroraenean kokatua da.
Toki sinbolikoki ezin aproposagoa, nun hogoi bat josle karraxkan lanean ari diren.

ANDERESERORA HIRIBURUN PASTORALA

Ez da sekulan uste baitarik pastorala bat egiten herri batean, eta gutiago Xiberoa den bere eremu naturaletik kanpo. Bainan hortan abiatzen den herriak, beste lekuetan jei horrek ekartzen duen onezia berdina bilatzen du : herriaren euskal nortasunaren finkatzea hertarren medioz, euskal kulturak duen tresna eder horren bidez. Andereserora Hiriburun pastorala ezaugarri horiek dute hazten, Aturriren mugan eta Errobiren azken metretan plantatua den Hiriburun.

Pastoralaren astro guziak alde

Hiriburun ez zen segurrenik pastoralik izanen, 1867an ez bazen herri hortan « Geneviève de Brabant » pastorala emana izan, bi aldiz, ukan zuen arrakastaren ondorioz. Ez zen pastoralarik izanen, laurrogeigarren hamarkadan ez bazen gertatu euskararen eta euskal kulturaren berpizkunderik, eta haren haritik euskararen erakaspena, lehenik gau eskola baten bidez eta orai eskola elebidun eta ikastolaren bidez. Eta nekezago izanen zen pastorala baten abiatzea, Hiriburutar pastoralzalerik ez bazen izan eta azken urte hauetan, Lapurdiko hiri nagusiaren inguruan ez bazuen pastorala haize azkar batek ufatu, xutik emanez estruktura artistiko eta tekniko bat, giza desafio horrek eskatzen duen indar erraldoi horri erantzuteko.
Bainan astroen lerrokatze baikor horrek behar zuen ere estakuru bat, herriak bizi duen memento berezi bat, ez erraiteko historiko bat : eta hau da Herriko Bihotzaren sortzea, Hiribururi hiri erdi berri bat ekartzen duena – hots aurpegi berri bat - eta zer da ederragorik, historia kultur ekintza nagusi batez lauzkatzea baino ? Pastorala da Hiriburuk ukaiten ahal zuen kultur ekintza ederrena, herritarrek muntzatzen duten sorkuntza batez eraikia den nortasun berriaren finkatzeko.

Andereserora Hiriburun pastorala

Herri baten historiaz egin pastoralak guti dira. Kasu huntan ez zen besterik egiten ahal, horrek pizten dituen dudekin eta lehena : Badea Hiriburuko historian nahikorik pastorala batentzat ? Arrapostua, Gilbert Desport herritarraren liburuan dago, eta baikorra da ; izen eta gertakari famatuak ez dira eskas : Beltzuntze eta herensugearen leienda, Hiriburuko 1813ko bataila, Jules Moulier « Oxobi » euskal idazlearen egonaldia … Bainan ere Hiriburuko historia markatu duen Baionarekilako etengabeko tirabira Mousserolles auzoaren inguruan, Bordelesek hortaz egin auzia, delako 1867ko pastorala, garaian garaiko herritar eta herriko kargudunak, auzapezak, Lapurdiko sindikak, bainan ere erdi arotik haste bi gerlen arterat arte izan diren Andereserorak, Andereserorainia etxea lekuko.
Gertakariek ez dute pastorala egiten, epopeiaren hatsak ere buhatu behar du hari batzuek josten dutela hastetik buru. Pastorala hunek kondatzen du Hiriburu herri zen denbora, bi gerlen artean hiritzen hasi baitzen. Eta Mousserolles auzoaz erdi arotik hasi Baionarekilako eztabada, trenkatzen da preseski bi gerlen artean, azken Anderserora desagertzen den mementoan, emanez garai luze horri unitate bat, pastoralak eskatzen duenaren izpirituan.

Lau partetako pastorala

- Erdi aroa eta Yruber izenaren sortzea (1150 urte alderat), Beltzuntzetiarren historia eta herensugearen leienda
- Iraultza aintzin: Hiriburu eta Baiona arteko tirabirak Mousserolles auzoaren jabetzaren inguruan.

- Iraultza eta iraultza ondoa
- 14eko gerla ondoa, Jules Moulier “Oxobi” ertorra, azken andere seroraren herioa (Marguerite Baladé 1919an), Mousserolles’en lotzea San Andres parropiari.

Pastoralak süjeta badauka, hau da Andereserora, Hiriburuko 800 urtetako historia luzean present izanen dena. Orotarat 21 jeikaldi badira pastoralan, 8 kantu, lau bataila eta hiru dantza sorkuntza. Pastoralaren ohiko kodigoen ildotik doa obra hau, nafarrera lapurtarrez diren bertsetekin.

Hiribururen hatseko pastorala

Pastorala ez da bakarrik ikusgarriaren eguna. Herritarrendako lehen biltzarretarik eta bereziki lehen mustraketik hasten da pastorala. Eta jada hortan dira 150 bat presuna alktür, dantzari, musikari, antolatzaile, eta dendari.
Mustrakak eta kantuen errepikak hasi dira 2017ko urriaren 20an eta rolak ondoko abenduaren 5ean banatuak izan dira. Dendariak ere urritik goiti daude jauntziak biltzen, diseinatzen eta josten Andereserorainean hain zuzen.
Parte hartzaileen aldetik, herriko kultur taldeak hor daude, Leinuako dantzariak eta txaranga, urrunagotik Beskoitzeko Oinak Arin taldekoak, herriko argazki kluba eta mugaz gaineko partaidetza ere izanen da, Donostiako Danborradako talde batekin eta nafartar dantzariekin.
Kargu ainitz bada, garai desberdin ainitz izanez, indar bat eginez emazte karguak sortzeko, istoria ofizialean guti agertzen badira ere. Belaunaldi desberdinak inplikatu dira haurak, gazteak eta helduak, aski bizia daiken obra horren gorpuzteko.
Hiriburutar gehientsuenek ez bazuten ezagutzen ere pastorala urbiletik, ikasteko eta ongi egiteko nahi haundia bada giro ezinago onean.
Aktürren mustrakak ostirail guziz iragaiten dira, soinularienak hilabetean behin, dendariek astean behin lantzen dituztelarik jauntziak. Eta xinaurritegi horren kudeatzaile da **Hiriburu Pastorala 2018** elkartea, partzuerrak eta diru laguntzak bilatuz bestalde, proiektu guziaren hastetik buru eremaiteko.

Hiriburu pastoralaren urratsean

Andereserora Hiriburun pastorala bi aldiz emana izanen da : Ekainaren 3an eta Irailaren 16an herriko plazan. Bainan hortarat heldu aintzin, herritarreri emanen zaie abentura hortan parte hartzeko parada. Webgune batek, https://hiriburupastorala.wixsite.com/2018, prestaketaren bizia segituko du astez aste, behar diren xehetasun praktikoak emanez beren mementoan.
Pastoralaz argitzeko bi konferentzia iraganen dira :

- Zer da pastorala ? Jean Louis Davantekin urtarrilaren 27an arratsaldeko 3etan, Herriko Etxean.
- Onak eta gaixtoak pastoralan, Patrick Queheillekin.

Joko batzu antolatuak daizke bai herriko eskoletan bai eta ere herritarrentzat jeiaren ezagutza helburu. Afitxa lehiaketa abiatua da eta martxo erditsurat arte iraunen du eta denbora pasa ahala , errepika zonbait publiko izanen dira, pastoralaren urratsean hiriburutarrak jartzeko gisan.

Eskerrak

Jada laguntza zonbait jaso ditu Anderserora Hiriburun pastoralak, Mugerreko herria Haitzondoan gela prestatzea gatik, eta E.K.E.rena, konferentzien antolakuntzarentzat, ahantzi gabe hainbat laguntzaile pribatu. Eskerrak deneri.

Arduradunak

Nicole GUILLEMOTONIA, André BOSCH : Hiriburu Pastorala 2018 elkartearen eremaileak
Pantxika URRUTY : Errejentsa
Guillaume IRIGOYEN eta Patxi IRIART : Idazleak
Alain IRIART : Azken kantuaren idazlea
Sophie LARRANDABURU : Kantuen musika egile eta zuzendaria
Cibelle DAMESTOY : Dantzen sortzailea
Maddalen RECALT, Arnaud IZAL : Satanen erakasleak
Sébastien PAULINI, Patrick CALVET : Soinularien kudeatzaileak
Maialen HIRIBARREN, Ana DUCAMP : Dendarien kudeatzaileak

Pastorala egunak

Ekainaren 3a, igandea Hiriburuko plazan
Irailaren 16an, igandea, Hiriburuko plazan

Komunikazio arduraduna

Sandra Boscq Dachary
Tél : 05 59 44 15 27
@ : communication@saintpierredirube.fr
Site Web: https://hiriburupastorala.wixsite.com/2018

ANDERSERORA HIRIBURUN PASTORALA

Une pastorale ne surgit jamais par hasard dans une commune, encore moins loin de son berceau natal: la Soule. Mais celle qui s'y aventure recherche le même bienfait qu'ailleurs : affirmer l'identité basque de son village avec le concours de sa population, en utilisant cet outil complet de la culture basque. Ces deux éléments fondent la démarche entreprise, à la frontière basque de l'Adour et aux dernières coudées de la Nive où se trouve St-Pierre d'Irube.

Tous les astres de la pastorale en soutien

Il n'y aurait sans doute pas de pastorale à St Pierre d'Irube si « Geneviève de Brabant » ne fut pas jouée en 1865 à deux reprises (à cause de son succès). Il n'y en aurait pas si dans les années 80 il n'y eut un renouveau de la culture basque et de la langue basque avec une Gau Eskola, et plus récemment la création de classes bilingues et d'une Ikastola. Et cela aurait était difficile, s'il n'y avait pas des saintpierrots amateurs de pastorale et qu'un vent pastoralier n'avait pas soufflé autour de la capitale du Pays Basque, formant une structure artistique à même de répondre au défi gigantesque que représente cette aventure humaine. Mais il fallait à cet alignement bienveillant des astres, une étincelle pour déclencher cette démarche, un moment particulier ou mieux, un événement historique à l'échelle de la commune. Il a eu lieu : c'est la construction du nouveau centre ville qui redéfinit St Pierre d'Irube et quoi de plus beau que d'honorer cette renaissance par un événement culturel majeur ? La pastorale est ce qui a de mieux comme outil culturel, basque qui de plus est, pour permettre aux villageois eux-mêmes, de forger la nouvelle identité de St Pierre d'Irube.

Andereserora Hiriburun pastorala

Il y a peu de pastorale qui ont comme sujet l'histoire d'un village. Ici cela s'imposait avec deux doutes immédiats. Le premier : y a-t-il assez de matière dans l'histoire de St Pierre d'Irube ? Le livre de Gilbert Desport répond par l'affirmative, que ce soit en terme d'événements et de personnages importants : Belzuntze et le dragon, la bataille napoléonienne de 1813, le passage de Jules Moulier « Oxobi » comme abbé ; mais aussi le désaccord permanent avec Bayonne au sujet du quartier Mousserolles, la pastorale de 1867, les différents maires et syndics labourdins, sans oublier la permanence d'une Andereserora (benoite), comme le témoigne la maison Andereserorainia.
Mais les événements successifs ne font pas systématiquement pastorale, s'il n'y a pas le souffle de l'épopée avec un ou des fils conducteurs. Cette pastorale dépeint St Pierre d'Irube lorsqu'elle n'était pas encore une petite ville sur une période allant du Moyen-âge à l'entre deux guerres, moment où prend fin le conflit avec Bayonne et où décède la dernière Andereserora, donnant ainsi son unité à l'œuvre, dans l'esprit de la pastorale.

Pastorale en quatre parties

- Le Moyen-âge, naissance du nom Yruber (1150) et histoire des Beltzunce et de la légende du dragon avant la révolution.
- Conflit entre St Pierre d'Irube et Bayonne pour le quartier Mousserolles
- Révolution et post révolution
- Après la guerre de 14, Jules Moulier "Oxobi », mort de la dernière benoite (Marguerite Baladé en 1919). Mousserolles rejoint la paroisse St André.

La pastorale a un süjet (héroïne) qui n'est autre que l'Andereserora, témoin des 800 années d'histoire de St Pierre d'Irube. Il y aura 21 scènes, 8 chansons, quatre batailles et trois créations dansées. Elle suit les codes habituels de la pastorale avec des vers en navarro-labourdins.

St Pierre d'Irube en pastorale

La pastorale ne nomme pas seulement le jour du spectacle. Pour ses acteurs elle débute dés les premières réunions, ou mieux dés la première répétition, en engageant 150 personnes en tant qu'aktür, danseur, musicien, logisticien ou couturière.
Les répétitions des acteurs et des chants ont débuté le 20 octobre 2017 et les rôles ont été distribués le 5 décembre suivant. Les couturières sont à pied d'œuvre depuis ce moment-là pour réunir les costumes, dessiner les patrons et pour coudre à Andereserorainia justement.
Cette pastorale mobilise toutes les forces vives et tous les talents de la commune tels que les danseurs et la txaranga de Leinua, les danseurs du groupe Oinak Arin de Briscous, le club photo Hatza ; un partenariat transfrontalier sera établi avec une association de tamborrada de St Sébastien et un groupe de danse de Navarre.
Il y a beaucoup de rôles, avec un effort fait en faveur des rôles féminins, car l'histoire officielle ne donne pas beaucoup de place à la gent féminine. Toutes les générations sont impliquées, les enfants, les jeunes et les adultes.
Bien que la plupart des participants avait de la pastorale une connaissance plutôt vague, il y a une grande volonté d'apprendre et de bien faire dans une très bonne ambiance.
Les répétitions des acteurs se déroulent tous les vendredis, ceux des musiciens une fois par mois et les couturières une fois par semaine. Et pour gérer l'ensemble des activités de cette fourmilière, une association spécialement crée pour l'occasion, Hiriburu Pastorala 2018, qui recherche également les partenaires pour mener le projet jusqu'à son terme.

St Pierre d'Irube en marche pastorale

Andereserora Hiriburun pastorala sera représentée deux fois le 3 juin et le 16 septembre sur la place de pelote. Mais avant, il sera donné aux habitants la possibilité de participer à cette aventure. Le site web https://hiriburupastorala.wixsite.com/2018 accompagnera toute la préparation semaine après semaine, en donnant les renseignements nécessaire au moment voulu. Deux conférences aideront à comprendre ce spectacle traditionnel :

- Qu'est-ce qu'une pastorale ? par Jean Louis DAVANT ce samedi 27 janvier à la Mairie
- Le Bien et le Mal dans la pastorale par Patrick Queiheille le samedi 28 avril.

Des jeux sur ce thème seront organisés dans les écoles et pour le grand public. Le concours d'affiche vient d'être lancé et est ouvert jusqu'à la mi mars. Certaines répétitions seront publiques afin de mettre les saintpierrots dans le sens de la marche de la pastorale.

Remerciements

Andereserora Hiriburun pastorala a déjà bénéficié de soutiens, la ville de Mouguerre pour l'utilisation de la salle Haitzondoan et l'I.C.B. pour l'organisation des conférences sans oublier les sponsors privés qui commencent à se manifester. Qu'ils en soient tous remerciés !

Responsables

Nicole GUILLEMOTONIA, André BOSCQ : Présidente et vice président e l'association Hiriburu Pastorala 2018
Pantxika URRUTY : Errejentsa
Guillaume IRIGOYEN et Patxi IRIART : Auteurs
Alain IRIART : Auteur de la dernière chanson
Sophie LARRANDABURU : Composition et direction des chants
Cibelle DAMESTOY : Chorégraphe
Maddalen RECALT, Arnaud IZAL : chorégraphe des danses des Satan
Sébastien PAULINI, Patrick CALVET : Responsables musiciens
Maialen HIRIBARREN, Ana DUCAMP : Responsables couture

Représentations

Dimanche 3 juin au fronton de St Pierre d'Irube
Dimanche 16 septembre au fronton de St Pierre d'Irube

Responsable communication

Sandra Boscq Dachary
Tél : 05 59 44 15 27
@ : communication@saintpierredirube.fr
Site web: https://hiriburupastorala.wixsite.com/2018